



FITORE

PROIEKTUAREN DESKRIAPENA

Gu Garazi Mikeo, Irati Etxabe, Ibai Perez, Haizea Ruiz eta Ibai Etxeberria gara eta Oreretako Oiarzo ikastolatik gatoz. Ekintzaileak izateko ahalegin honetan, Fitore enpresa sortu dugu. Horretarako, CANVAS ereduari oinarritu gara, eta berritzailea den proiektu bat sortu dugu. Ideia hau aurrera eramateko, lehenik eta behin, gizartean ikusten genuen beharra detektatu genuen. Gure kasuan guk aukeratutako beharra zera izan zen: jendeak beren bizitza planifikatzen jakitea eta haien elikadurari buruzko berri izatea.

Fitore enpresan aplikazio bat sortu dugu zeinak guk gizartean nabaritu dugun behar bat asetzeko tresna izango den. Gure enpresaren helburua behar hori asetzea izango da, jendearen bizitza, egunerokoa eta osasuna (fisikoa eta psikologikoa) erraztuz, eta baita hobetuz ere. Proiektu hau garatzeko, aipatutako ereduari oinarritutako pauso ezberdinak eman ditugu: lehenik eta behin gure enpresa ideia finkatu genuen. Ondoren, balio proposamenak finkatzea eta merkatuaren segmentazioa zein izango zen definitzea. Gero, funtsezko sozietateak zeintzuk ziren hautatu eta irabazi iturriak finkatu genituen. Kanalekin eta bezeroekiko harremanekin jarraituz. Bukatzeko funtsezko baliabideak, funtsezko jarduerak eta kostuak definitu genituen.